



LIBURUA

Ur beltzetako tximeletak



GOIENA/EUS

LAZUNAK AZKAZALETAN OIHANA ARANA

SUSA

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Lazunak azkazaletan. Bi hitzetatik bat ez dut ulertu. Lazun. Google bilatzailea. Elhuyar hiztegia. Euskarazko sinonimoa da guk erabiltzen duguna: korrokoi. Gaztelaniazko adiera ere ez nuen ezagutzen. Eta hala ere, hiztegiak itzuli ezin duen zerbait esan nahi digu poetak izenburuarekin. *Lazunak azkazaletan*. Liburu barruan aurkituko dugunaren adibide eta abisu. Biak batera.

Liburua hainbat ataletan banatuta dago. Hitzaurre gisako poemari (*Fikzioaren apologia*) sei kapituluk jarraitzen diote eta epitafioa den azkenarekin amaitzen da. Izenburu bereziekin hasten ditu atalak: originalak eta ebokatzaileak izateaz gain irakurlea jokoza kanpo uzteko duten gaitasuna azpimarratuko nuke. Hau da, ulerterrazak izanagatik surrealistikak diren irudiak ere ekarriko dizkigu, kontrastea sortuz modu horretan.

Arkatza hartuta saiatu naiz atal ba-

koitza egituratzen duen kontzeptu edo ideia multzoak jasotzen. Ezinezkoa egin zait. Ideia batek jarraikortasuna zuela pentsatzen nuen bakoitzean... katakrak! espero ez nuen zerbaitekin topo egin dut. Eta bai, izugarri gustatu zait hori berori. Hiru-lau buelta eman dizkiot liburuari kritika hau nola idatzi asmatzeko. Eta benetan diotsuet: ezinezkoa da Oihana Aranak liburuan egiten duen guztia laburbiltzea.

Irakurri dudak bakoitzean poema batek edo besteak hartu du nire arreta. Iradokitzailea egin zaidan zerbait aurkitu dut irakurri dudak aldiro. Eta aldi guztietan sentitu dut idazlea nirekin jolasean ari zela. Edo bere buruarekin jolasean ari zen bitartean eskutik eraman nau. Hitzekin jolasten du, bai. *Zaunk* izeneko poema ikusi besterik ez dago, 17. orrialdean. Baina ideiekin ere jolasten du. Irudiekin. Hitzekin pentsatzen du eta

pentsarazi egin dit.

Azaleko begiratu batean egunerokotasunaz eta txikiar ari dela pentsa genezake. Baina irakurraldi pausatua erakutsiko digu esaten duena baino gehiago esaten duela. Bizi dugun jendarteari buruzko ikuspegi kritikoa duela. Gauzei beste leku batetik begiratzeko gaitasuna du Aranak.

Etxea liburu guztian zehar errepikatzen den kontzeptuetako bat da. Etxea delako gorputza, bizitokia, familia, ezkutu izan nahi ditugun gauzen gordailu eta babesa. Batzuetan etxea logela baino ez da. Bestetan hozkailua. Edo bestearen sorbalda.

Oihana Arana idazle eskoriatzarrak denbora luzez gogoratuko dugun poema liburu idatzi du. Askotan irakurriko ditudan hitzak aurkitu ditut bertan. Mundu eta izar berri asko dituen galaxia literarioa. ●